

HITZA



GETARIA, BIKAIN

Kontxako Banderan ohorezko txandan lehiatzeko txartela lortuta, «ametsak betetzen» ari da Getariako gizonen trainerua. Orioko gizonen traineruak, aldiz, ez du erdietsi txanda horretan aritzeko tokirik. Bestalde, Orioko emakumeek bi segundoko abantaila dute Donostiako bandera eskuratzeko lehia // 2-3

ONINTZALETEARRIETA

‘Nao Victoria’ Zarautzen eraiki omen zuteneko ospakizunen kontra azaldu da hainbat aditu

Kritiko azaldu dira ontzia herrian eraiki zuteneko historia «ofizial gisa» hartu duelako Zarauzko Udalak • Ezer ospatzeko, «oinarri zientifikoak eta historikoak ezinbestekotzat» jo dituzte adituek • Gutuna kaleratu duten adituen artean daude Xabier Alberdi eta Ekai Txapartegi zarauztarrak // 4

Zestoa Udal langileen grebak ez du izan «ez hanka, ez buru», Udal Gobernuaren ustez // 6



Kalea girotu dute Zestoa bihar hasiko dituzten Ama Birjin festetarako

Joan den asteburuan ekitaldi ugari izan dituzte, hala nola Gazteen Eguna, Ondarbasoko Igoera, adinekoei omenaldia eta Txistularien Alardea // 5



Getariako zaleak arraunlariei ongietorria emateko prest, Donostiako moilan. ONINTZA LETE ARRIETA

Pasa den ostegunean Kontxarako sailkatzea lorpen handia izan zen Getariako ontziarentzat, baina lehen jardunaldian denboraldia borobildu dute, ohorezko txanda jokatzeko txartela lortuz.

Herri txiki baten amets handia

**-AIORA LARRAÑAGA
SOLABERRIETA -
ONINTZA LETE ARRIETA**

Donostiako Banderak badu beste banderek ez duten xarma berezia, eta noizbait moilan izan denak badaki zer den sentipen hori. Urteko arraun hitzordurik garrantzitsuen, ordea, gozoa izan ohi da irabazleentzat, eta gazia eta garratza banderak ihes egin diela antzematen duten taldeentzat. Banderak alde batera edo bestera eginagatik, ordea, bada aldatzen ez den zerbait: zaleen berotasuna. Igandean ere Donostiako moila arraunzalez bete zen; kolore guztietako elastikoak ikus zitezkeen, baina baziren besteen gainetik nabarmendu ziren bi kolore: getariarren marroia eta oriotarren horia. Eskualdeko zaleek ez zuten hutsik egin, eta animo oihuz eta festa giroz bete zituzten portua eta haren ingurua.

Aurtengoan, zalantzarik gabe,

Getariak sentitu du Donostiako Estropaden alderdi gozoa, aurreikuspen guztiak gañdituta. Getariako gizonen taldea ez zen lehen postuan sailkatu igandean, baina emozioz beteta ospatu zuten zaleek Oriori aurre hartuta, datorren igandean ohorezko txanda jokatzeko txartela. Aimar Iraola arraunlariaren esanetan, «ametsetako estropada» egin zuten igandean. «Gure helburua zen gozatzea eta ahalik eta lehia korrenak izatea, eta lortu genuen. Hurrengo igandean ere, gozatzera eta ahalik eta lanik txukunena egitera aterako gara uretara, eta etortzen denari helduko diogu, beti egin dugun bezala».

Iraolak hitzik ez du zaleek izan duten erantzuna eskertzeko. «Beti ondoan ditugu, eta ikaragarria izan da eman diguten bultzada. Denboraldi guztian zehar babestu gaituzte, baina azken asteotan sentitu duguna ahaztezina da. Beste behin, ikusi da bat eginda gaudela, eta sentitzen dugu traineruan daramagun hamabosgarren arraunlaria dire-

la», aitortu zuen estropada amaitu berritan, hunkituta.

Estropada berri bat

Orio Orialki emakumeen taldea ere «gustura» da lehen estropadan egindako lanarekin. Arraun Lagunaki bi segundoko abantailaxoa ateratzea lortu baitzuen datorren igandeko estropadara begira. Ez da errenta handia, baina lehen jardunaldian lehia estu-estu jokatu zutela ikusita, irabazteak indarra eman die. «Burua hotz mantentzea lortu genuen estropadan zehar, eta gustura gaude», aitortu zuen Itxaso Azkonobieta arraunlariak, hark ere moilan. Izan ere, sailkapen estropadan azkarra goa izan zen Donostiako taldea. «Horregatik, lehen jardunaldian gure helburua zen osteguneko albu batera uztea eta lehen postuaren bila joatea».

Orioko emakumeen taldeak argi du datorren igandeko «beste estropada bat» izango dela. «Hutsetik hasiko gara, Kontxako Banderak irabazteko jardunaldi bakoitza bakarria izango balitz

bezala ulertu behar delako. Horregatik, saiatuko gara astean zehar lan ona egiten, eta gure bertsiorik onena ematen».

Banderak ihes

Kontxako lehen jardunaldiaren alderdi gazia, berriz, Orioko gizonen taldeak bizi izan zuen igandean. Bosgarren sailkatuta, Orioko mutilak ez dira ohorezko txandan izango, eta bandera irabazteko lehiatik kanpo geratu dira, Urdaibaik 24 segundoko errenta aterata.

Jon Iriondo arraunlariak azaldu zuenez, taldeak ez zuen bere arraunketa aurkitu estropadan

zehar. «Ahaleginak egin ditugu aurkarietara hartzeko, baina ez dugu arraunean gozatu, eta, ondorioz, emaitza ez da ona izan. Aurtengo Kontxako Banderak ihes egin digu, baina datorren igandean ahal dugun lanik onena egitera aterako gara berriz ere uretara», azaldu zuen estropada amaitu berritan. Berak ere zaleen erantzuna nabarmendu zuen. «COVID garaia pasatu da, eta zaleak berriz arrantlan ikustea gozamen da guretzat. Emaitza nahi baino okerragoa izan bada ere, zaleek erantzun bikaina izan dute, eta eskertzea da ematen diguten babes».

Lehenengo jardunaldia

EMAKUMEEN SAILKAPENA

- 1.- Orio Orialki: 10:37,52.
- 2.- Arraun Lagunak: 10:39,68
- 3.- Hondarribia: 10:50,47.
- 4.- Donostiarra: 10:50,82.
- 5.- Tolosaldea: 10:52,83.
- 6.- Hibaika: 10:57,91.
- 7.- Cabo: 10:59,65.

8.- Chapela: 11:15,18.

GIZONEN SAILKAPENA

- 1.- Bermeo Urdaibai: 19:21,56
- 2.- Hondarribia: 19:29,20
- 3.- Donostiarra: 19:29,26
- 4.- Getaria: 19:44,98
- 5.- Orio Orialki: 19:50,58
- 6.- Zierbena: 19:58,40
- 7.- Kaiku: 20:18,30
- 8.- Ondarroa: 20:25,14



Oriorio Orialki nesken taldea trainerua uretatik ateratzen, zaleen artean. O.L.A.



Ibon Arruti Aldape arranplara begira. O.L.A.



Orioko zaleak arraunlariak animatzen. O.L.A.

«Maila bat egin dugu gora, ea luzaroan jarrai dezakegun hor»

JON LARRAÑAGA GETARIAKO A.E.

'Esperantza' traineruko arraunlaria ez ezik, taldearen entrenatzailea ere bada Jon Larrañaga, eta Getariak igandean Kontxan lortutako emaitzaren lehen balorazioa egin zion HITZARI portuan bertan.

-O. LETE ARRIETA

Igandean, Kontxako Banderako lehen jardunaldiko estropada amaitu, eta traineruaren estandean adierazpen gutxi batzuk egin zizkion HITZARI Jon Larrañaga (Getaria, 1979) Getariako Arraun Elkarteko arraunlari eta entrenatzaileak.

Zorionak emaitzagatik. Estropadaren balorazio ona egingo duzu, ezta?

Eskerrik asko. Balorazio ona ez, hurrengoa. Inork gutxi esperotakoa izan da, guk esperotakoa eta amestutakoa... Horrelaxe etorri da. Estropada oso ona egin dugu, konpleto-konpletoa, eta gozatu egin dugu.

Laugarren egin eta hurrengo igandean ohorezko txandan sartzea ametsa zen, hortaz.

Amestu egiten genuen, bai. Denboraldi oso ona egin dugu, eta beti amesten da; maila emanez gero... Hortik hurbil ibili gara, eta ea ukitzera iristerik genuen... Badakigu Kontxa honek aldrebesko gauza gehiago dituela, kentzeko duena gehiago duela emateko duena baino. Gaur [igandea] alde ona tokatu zaigu, eta disfrutatuta egin dugu.

Zein da sekretua? Taldearen ilusioa?

Talde honek ilusioa du, eta gosea ere galanta dauka, ez dizut gezurrik esango. Gosea izugarria dauka. Poliki-poliki, lau urte haue-tan lana oso ondo egiten ari dira, egunetik egunera eskailera maila bat igotzen, eta igandean beste maila bat igo dugu, eta ea hor, maila horretan, denbora askoan mantentzen garen.

Kontxako bigarren jardunaldian gozatzeri aterako zarete,

ala igandeko emaitza mantentzera?

Aurrena, gozatzeri. Entrenatzaile gisa, beti azpimarratzen dudan aurreneko gauza hori izaten da: aurrena gozatu egin behar dugula, eta gozatzen badugu, horrek emango dizkigula irabazteko aukerak. Lehenengo gozatu, disfrutatuta, eta bihurtik [atzo] aurrera hasiko gara pentsatzen igandeko estropadan.

Getariatik jendetza etorri da zuek animatzeri...

Afizioari eskerrak eman beharrez gara. Igartzen da gaur ere hemen zein den zaratsuen eta zein garen *pasionalenak*. Eskerrik asko eta eskerrik asko, ez nuke amaituko eskerrak ematen.

Azpimarratzeko beste zerbat ikusi duzu?

Egia esan, ez zait batere gustatu antolakuntzari dagokionez Kontxako Banderako arduradunek hartu dituzten erabakiak. Lona beltz batzuen atzean gaude, moilatik 300 metro ingurura, afizioarekin ezin dugu egon, mutilek estropada amaitu eta 40 minutu inguru egon behar izan dute urak eta gauzak pasatzeko, guri ez zigutelako uzten pasatzen. Okerrera goazela uste dut.

Bai?

Bai. Aurrera joan beharrez, atzeraka goaz. Ez dakit nork agintzen duen hemen, baina ke-xatu beharra dagoela iruditzen zait, guk ez dugulako futbol zelai batean jokatzeko. Afizioarekin elkarlanean egiten den estropada bat da hau joan den ehun eta piko urteetan, eta uste dut hori pixkanaka-pixkanaka galdurazten ari direla.

tzat egun garrantzitsua zen. Imagina ezazue zer den herri txiki baten, 49 urteren ostean, berriz ere Kontxako Banderaren lehia horretan egotea.

Estropada hasi zen, eta getariarren arraunkera tinkoa zen; kanpotik nabaritzen zen barruan gozaten ari zirela egiten ari ziren estropaz eta arraunkeraz. Hala, lan horrek bere fruituak eman zituen: Getaria Kontxako Bandera jokatzeko sailkatu zen.

Beste sailkatuak: Hondarribia, Zierbena, Kaiku, Urdaibai, Orio eta Ondarru. Azken horien poza ere hunkigarria izan zen, Eusko Label Ligan mailari eusteko borroka horretatik atera, eta Kontxarako sailkatzea lortu baitzuten.

Beraz, esan daiteke mutiletan lehia euskalduna izango dugula Kontxan, Gipuzkoako lauk eta Bizkaiko lauk osatua.

Nesken sailkapen estropadan, aldiz, ez zen sorpresa handirik egon. Guztiok espero genuen hori gertatu baitzen: hurrengo urtean Euskotren Ligan ariko diren zortzi ontziak barruan daude. Faboriti nagusiak zein diren ere argi dago: Orio eta Arraun Lagunak. Gure eskualdekoek Euskotren Ligan arerio nagusi Arraun Lagunak izan dute, eta Kontxako Banderan ere hala izango da azken unera arte.

Izan ere, pasa den igandean, Kontxako Banderaren lehenengo jardunaldia jokatu zen. Goizean goiz Pasealeku Berria eta Do-

nostiako portua kolorez jantzi ziren: horiz, berdez, marroiz, urdinez... Kontxako Banderak izaten duen xarmetako bat hori da, hain zuzen ere, bertan egoten den giroa. Ez luke inork aldatuko.

Nesken estropada jokatu zen lehendabizi, eta Oriokoak nagusi ziren. Lehenengo zibogara arte lehia estuan ibili ziren Arraun Lagunak taldearekin, baina ziboga eman eta poparean jarri zirenean, bi segundoko abantaila eskuratu zuten. Bi segundoko denok dakigu ez dela ezer itsasoan jokatzeko den estropada baterako, eta tortillak buelta eman dezakeela; baina nahiago alde izan, kontra baino.

Jarraian mutilen txanda izan zen. Gehienek ligako lehen sailkatuak ohorezko txandan sartzearen aldeko apustua egin bazuten ere, haien sorpresarako, ez ziren horrela izan. Lehenengo txandan Hondarribiaren atzetik Getaria gailendu baitzen, Orioren aurretik. Hura poza getariarrena. Getaria ohorezko txandan, eta amets bat gehiago bete-ta. Bestalde, bigarren txanda-koek sekulako estropada burutu zuten, eta Urdaibaik Hondarribiari zazpi segundoko errenta ateratu zion. Urrezko zazpi segundoko. Ez dago ezer itxita oraindik, eta datorren iganderako itsaso nahasia eta olatu handiak iragarri-ta daude. Eta, hala bada, ikus-kizun zoragarri bat bizitzeko aukera izango dugu, bai nesketan, bai mutiletan.



Analisa Izaro Lestayo

Arraun aditua

Biharamun emozionala

Biharamun emozionala, horixe da gaur goizean jaiki eta gainera etorri zaidana. Getariarra naizen aldetik, Getariak hitz egitea tokatzen zait aste honetan, pixka bat bada ere. Esango nuke, asteazketatik amestetan gaudela getariarrak. Egun hartan izan zen Kontxako sailkapen estropada, eta kinieletan, Getariako arraunlariak sartuko zirela aurreikusten bazen ere, bazegoen kontrakoa gertatuko zenaren beldurra edo tentsio puntua arraunlarien artean. *Esperantza*-koek bazekiten beraien lana ondo eginez gero, sailkatzeko aukera handiak izango zituztela, baita edozein akats txiki faktura pasako ziela ere bai.

Estropada eguna iritsi zen, eta denok urduri geunden; arraunlariak, zein herriko jendea. Denen-



Naó Victoria itsasontziaren erreplika Getariako portuan, artxiboko irudian. UROLA KOSTAKO HITZA

‘Naó Victoria’ Zarautzen eraiki omen zelako ospakizunen aurka egin dute

Hainbat aditu harrিতa daude udalak «historiaren profesionalak erakutsitako gutxiespenagatik» • Sinatzaileen artean dira Xabier Alberdi eta Ekai Txapartegi

-MARIAMAYA MANTEROLA Getarian ez ezik, ospakizun eguna izango da gaur Zarautzen ere. Izan ere, *Naó Victoria* itsasontzia Zarautzen eraiki zutela argudiatuta, hainbat ekitaldi izango dira goizean zehar Lehe Zaharren enparantzan. Hainbat unibertsitate eta erakundetako profesionalak, tartean, Xabier Alberdi eta Ekai Txapartegi zarautzarrek, ordea, gogor kritikatu dute udalak ospakizun ekitaldi horiek antolatuta izana.

Sinatzaileek azaldu dute «harriri eta zur» utzi dituztela azkenaldiko gertaerak. Gutunean esan dute Zarauzko Udalak «historia ofizial gisa» hartu duela *Naó Victoria* herrian eraikia izan zela, eta «edozein ospakizunen alde» egon arren, oinarri zientifikoak eta historikoak ezinbestekotzat jo dituzte. Gaineratu dute udalak kontraste kritikoa-analitikorik gabe eta frogatu gabe eman dituela ontzat zenbait teoria.

«Mingarrietakoa» izan da, dena den, «erakunde publiko baten instituzio zientifikoaren egi-

tekoak beregain hartzea». Historialari profesionalak ere aipatu dituzte, gainera. Hala diote gutunean: «Gipuzkoako Historia aztertzen duten historialari profesionalen kopuru handia nahiz erakunde kopurua kontuan hartuta – Albaola, Aranzadi Zientzi Elkarteak, Eusko Ikaskuntza, Miguel de Aramburu Gipuzkoako Historialarien Elkarteak, Euskal Herriko Unibertsitatea eta bere Historia sailak bezalako erakundeak –, ez dugu ulertzen zer irizpide erabili diren itsasontzi hori

Getarian guztia prest Elkanoren Lehorreratzerako

Urtemuga bikoitza ospakizun egun bilakatu dute Getarian. Izan ere, 500 urte igaro dira munduari lehen bira eman ziotenetik, eta 100 urte, berriz, getariarrek lehen antzezpene egin zutenetik.

Elkanoren Lehorreratzearen antzeppen ekitaldia 17:00etan

15:15ean ustez Zarautzen eraiki zela ospatzeko». Horrelako jokabideak «gizarteak bizi duen gaitzaren erakusle» dira, gutunean adierazitakoaren arabera, «erabat galduta *postegian* eta autoritate intelektual faltan, non Wikipedia edo beste edozein okurrentzia apurtzaile eta berri bihurtzen diren jarraitu eta aipatu beharreko erreferentziak».

Hiru eskakizun

Sinatzaileak gobernu erakunde-iei zuzendu zaizkie, eskakizun

hasiko da. Guztira, 260 lagun baino gehiagok hartuko dute parte ekitaldian, eta hiru zati izango ditu ibilbideak. Lehen zatian, moilan egingo dute ohiko Elkanoren iritsiera. Bigarren zatian, mundua irudikatzen antzezpene egingo dute. Kontinenteei dagokienez, Patagoniak ordezkatuko du Amerika, Cabo Verdek Afrika, eta Getariak berak, Europa. Hirugarren eta azken zatian egingo litzateke aldaketa nagusia.

zehatzak egiteko. Batetik, historia zintzoa susta dezatela eskatu diete, «historialariek egina, nahiz eta akademikoak ez izan, beren berme zientifiko eta profesionala aplikatu dezaten, eta metodologia zientifikoak eta metodo historiografikoak aplikatu ditza-

ten». Historialarien eta zientziaren erakunde «gizarte rola» aldarririk nahi izan dute, bestetik, bai eta interesa duten teoria eta us-teak, ideologizatuak edo alderdi-koikiak, alderatzeko beharra ere,

Mundua leku eder eta anitz bezala irudikatzen erabiliko dute.

Errepidea itxita egingo da 15:30etik 20:00etara, bai Zarautz aldetik bai Zumaia aldetik; Meagako bidea ere itxita egingo da. Autobus zerbitzu publikoak maiztasunez ariko dira joan-etorriak egiten. Zarautzitik 15 minutuero irtengo dira ohiko geralekuetatik, 15:00etan hasi eta 20:00ak arte. Zumaian ere ordu tarte berean

datozen lekutik datozela, historiarik profesional adituen bitartez, «oinarri historiko eta zientifiko gutxi ospakizunak antolatuta aurretik».

Hala, Zarauzko Udala eta Gipuzkoako erakundeak eskura dituzten tresnak erabiltzera deitu dituzte: «Jo dezatela probintziako historialari profesional eta erakunde zientifikoetara. Horrez gain, salatzen dugu azkenaldian Gipuzkoako zenbait udale-

Erakunde publiko-ien profesionalengana jo dezaten eskatu nahi izan diete gutunean

tan orokortzen ari direla jardunbide desegokiak, eta horren adibide egokia dela Zarautzen irailaren 6an egingo den ospakizuna, horrek ez baitu peritajerik eta kritika historiografikorik pasatu».

Historia analisi kritikoa erekin, ikuspegi konparatuekin, testuinguruarekin eta interpretazioarekin egiten dela irizita, ikertzearen, zabaltearen, partekatzearen eta eztabaidatzearen alde egin dute, haren «funtzio sozialaren» alde, alegia.

Txapartegirekin eta Alberdirekin batera, sinatzaileen artean dira Alvaro Aragon Ruano, Euskal Herriko Unibertsitateko iraslea; Guillermo Roa Zubia, Elhuyar Fundazioko kidea; Juan Madariaga Orbea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea; Margarita Serna Vallejo, Kantabriako Unibertsitateko irakaslea; Hilario Casado Alonso, Valladolideko Unibertsitateko irakaslea; Miguel de Aramburu Gipuzkoako Historialarien Elkarteak; Gipuzkoako Historialarien Elkarteak; eta Albaola Itsas Kultur Faktoria.

Egunkari hau harremanetan jarri da Zarauzko Udalarekin, baina erakundeak ez du adierazpenik egin nahi izan gutunaren inguruan.

eskainiko dute zerbitzu berezia, ordu laurdenero, Patxita Etxezarreta geralekutik. Zestoatik ere autobusak jarriko dituzte ordu erdiko tartearrekin, Sansinenea industrialdetik, 15:00etan hasita.

Bestalde, Getariako Katrapuna kantinak jakinarazi du otarteko solidarioak eskainiko dituela eguerdian eta iluntzean, eta diruaren %20 Itsas Salbamendu Humanitarioari emango diola.



Irudia Antton Olaizolaren «etxeratzea» eskatu dute

Antton Ao povo herri ekimenak hainbat ekitaldi prestatu zituen joan den larunbaterako Antton Olaizola deportatu zestoarraren «etxeratzea» eskatzeko. Herri bazkariaren aurretik, argazki herrikoia atera zuten Zestoako plazan. NEREA URANGA



Goian, Zestoako Txistularien Alardea. Behean, Mendia Ondarbasoko Igoeran, eta adinekoei omenaldia.

Joan den asteburuko bi egunetan festa giroko hainbat ekitaldi izan dituzte Zestoa; besteak beste, Gazte Eguna, adinekoei omenaldia, Ondarbasoko Igoera eta Zestoako Txistularien Alardea.

UGARTE
burdindegia
www.ugarte-zestoa.com

INDUSTRI HORNIDURA
Toribio Altzaga z/g
Tel. 943-14 71 54
ETXKO TRESNAK
Portale 13
Tel. 943-14 85 83
ZESTOA

www.laiakdenda.com ifnoa: 943148134

Lurraren onena
laiak. Zestoaren bihotzean

KOIOTE Ondo pasatu
foru plaza, 4 - 943-14 70 95
ZESTOA jaiak!

Tailerrak Lizarralde
Mercedes-Benz
Estazio Industrialdea, 6, 20740 (Zestoa)
Teléfono: 943 147 011
Fax: 943-148 031
www.tallerlizarralde.mercedes-benz.es

Amabirjinetarako girotu dituzte herriko kaleak

-NEREA URANGA

Zestoako kaleetan festa larunbat eguerdian hasi zen, Gazte Eguneke ekitaldiekin. Laranjadi plazako txosnak ireki eta Arkupetan txarangak girotu zituen kaleak. Segidan, Antton Ao povo herri ekimenak antolatutako herri bazkaria batutako 300 lagunek bete zuten plaza.

Arratsaldean, berriz, XXXV. Ondarbasoko Igoera erlojupeko txirindularitza proba jokatu zuten. Hemezortzi lagunek parte hartu zuten, eta bi minutuko tar-

tearekin irten ziren Erdikaletik, hiru kilometroko bidea egiteko.

Ondarbasoko helmugara iristen azkarrena Jon Mendia izan zen, 11:14 denboran ibilbidea eginda. Jon Agirrek 2016. urtean jarritako marka hautsi zuen Mendiak larunbatean, segundo bateko alde aterata.

Hiru neska izan ziren igoerako parte hartzaileen artean, eta Leire Uranga izan zen hirurretan azkarrena, ibilbidea 18:53an osatuta.

Igandea, berriz, jubilatuei eskainitako eguna izan zuten, amabirjinen aurreko asteburuko

festa egitarauaren barruan. Angeles Jimenez Espada eta Jose Luis Galdona omendu zituzten eguerdian plazan egindako ekitaldian.

Igande arratsaldean kirolegiko frontoia jendez goraino bete zuten Zestoako Txistularien Alardeak. Ikuskizun handia eskaini zuten han bildutako txistulari, musikari, abeslari eta dantzari. Herriko hainbat txistulariz, dantzari eta batukada taldeaz gainera, Eñaut Elorrietak eta Roberto Mosok bina abesti kantatu zituzten ikuskizuneko gonbidatu gisa.

Grebalariek «nahasmenera» jo dutela salatu du Udal Gobernuak

Zestoako udal langileek bertan behera utzi zuten lanuztea abuztuaren 31n • Udal Gobernuak dio «hasieratik» jakinarazi zutela grebak ez zuela «ez hanka eta ez buru»

-ANARTZ IZAGIRRE

Zestoako udal langileek 50 egunez egin duten grebak zeresana ematen jarraitzen du. Joan zen abuztuaren 31n, greba etetea erabaki zuten langileek udala «bera eginda geratu» dela eta lanpostuen oinarriak «beren interesen arabera argitaratu» dituztela argudiatuta. Orain, Zestoako Udal Gobernuak osatzen duten hautetsiek -Ruben Alberdi, Mikel Arregi, Marga Eizagirre, Nerea Odriozola, Aitor Salegi eta Beatriz Zubia- erantzun egin diete grebalariei, eta prentsa ohar bat kaleratu dute xehetasun guztiak.

«Argudioen faltan eta benetako edukiaz hitz egiteko ausardiarik ez denean, nahasmenera eta lokatzetara jo ohi da», adierazi dute Udal Gobernuo kideek, eta azpimarratu dute grebalariek beren azken oharrean horixe egin dutela. Lan grebak «lan baldintzekin lotura duten gatazkek» deitzen direla nabarmendu dute hautetsiek, eta ez enplegu publikorako oinarrien deialdiekin: «Azken horietan, gatazka juridikoa izan ohi da, eta horretarako tresna nagusiak inpugnazioak eta helegiteak izaten dira, ez grebak. Deialdia gutxiengo batek ezer negoziatzen hasi aurretik eta udal langileen gehien-goari bizkar emanda egin dela kontuan hartzen badugu, burugabekeria oraindik eta handiagoa izan da». Era berean, Udal Gobernuak adierazi du «hasieratik» esan izan dutela greba horrek ez zuela «ez hanka eta ez buru».

Bi aldeak negoziatzen aritu dira adostasunera iristeko helburuz, baina Udal Gobernuak adierazi du ez dela «erraza» izan grebalariekin gauzak adostea: «Aitortu behar dugun lanpostuekiko interes pertsonal zuzena dutenekin negoziatzea ez dela batere erraza izan, bakoitzaren interes partikularrak mahaigaineratzen zirelako eta Udal Gobernuak osatzen dugun ordezkariorik interes partikularren gainetik publikotasuna eta udalaren interes orokorrak defendatzeko gaudelako».



Zestoako Udal Gobernuo kideak, uztailaren 14an egin zuten agerraldian. IHIINTZA ELUSTONDO

Negoiazioa mahaia aipatzean, Mikel Arregi alkateak azken bileretara joateari utzi ziola ere salatu zuten grebalariek azken oharrean, eta horri erantzunez, Udal Gobernuak helarazi du grebalariek «hainbat pankarta iraingarri jarri» eta «errespetuari dagozkion mugak gainditu» zituztela hartu zuela alkateak erabaki hori. «Bere erabakia pertsonalki grebalariei jakinarazi eta gero, negoziazio mahaira beste zinegotzi batzuk gehitu ginen, erabakigarritasun osoz».

Ondoren, joan zen uztailaren 28an, greba komiteak negoziazio mahaia uztea erabaki zuen, eta udalak hala eskatuta, abuztuaren 4an berriro elkartu zirela jakinarazi dute Udal Gobernuo kideek. Grebalarien hiru ordezkarik parte hartu zuten bilera hartan, eta horietako bik «negoziazioa agortutzat» eman zutela diote hautetsiek: «Hirugarrenak azken saiakera egin nahi zuela eta, bi zinegotzi elkartu ginen abuztuaren Sean harekin. Udalarentzat onartezina zen proposamena mahaigaineratu zuen hark, eta, gainera, gainontzeko 11 grebalariekin adostu gabea zela aitortu zigun. Hori izan da azken negoziazioen kronika tamalgarría». Hala, udalak «agortutzat» eman zuen negoziazioa egun hartan, bi aldean «proposamenen distantzia» eta «negozia-

zio mahaiko parte hartzea» ikusita. Bide hori agortuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten oinarriak, eta grebalariei helarazi zizkieten.

Bilerak, «mehatxupean»

Bi aldeek «mehatxuak eta errespetu faltak» egotzi dizkiote elkarri, eta grebalariek beren oharrean nabarmendu zuten «beste atal bat» merezi zuela gai horrek. Horren aurrean, honakoa adierazi du Udal Gobernuak: «Has daitezela, bada, kapituluak xehatzen: pankarta iraingarriak,

«Publikotasuna eta interes orokorrak defendatzeko dago Udal Gobernuak»

«Pertsonalizatzeko izan duten nahi obsesibo hori erabat lekuz kanpo dago»

udalarentzat lanean diharduten enpresetara grebalarien izenean telefono bidezko mehatxu deiak...». Era berean, «alkatearen autoritarismoa» aipatu izan dute udal langileek, eta hautetsiek jakinarazi dute erabaki guztiak «Udal Gobernuak bere osotasunean adostutako proposamenak» izan direla. «Pertsonalizatu eta pertsonalizatzen ja-

rraitzeko izan duten nahi obsesibo hori erabat lekuz kanpo dago, eta ordezkarik sindikalak lekuko, gezur borobila da bilera guztietan mehatxupean egon direla. Aldiz, udaletik kanpo garbi ikusi da espazio publikoan agertu diren irainak eta mehatxu deiak norenak izan diren».

Era berean, udal langileek beren oharrean amaieran zehazten dute herriko jaiak gainean izanda herritarrek ez dutela «udaleko gatazka eta kudeaketa txarraren ondorioak jasan beharrik», eta, ondorioz, greba etetea erabaki dutela. «Irailaren 1ean itzuli dira lanera, bazen garaia. Lanik gehienak amaituta daudenean, Zestoako festak ez baldintzatzeagatik itzuli direla diote. Zein izan da orduan grebaren helburua abuztuaren Setik irailaren 1era?», diote alkateak eta zinegotziek. Gehitu dute langileek abuztuaren Setik dakitela lanpostuen oinarriak argitaratuta zeudela GAOn eta ez zegoela atzera bueltarik. «Ordutik honakoa ulertzeko azalpen bakarra auzoetako eta herriko jaiak baldintzatu nahia edo oportetean egon izana da. Bide batez, diotena hala bada, auzoetako jaiak ez ote dute begirune bera merezi?».

Bestealde, udalak jakinarazi du Zestoako Udalaren webgunean daudela lanpostu horiei dagozkien oinarriak, eta, gainera, jaki-

50

50 EGUNEKO LANUZTEA

Uztailaren 13an hasi zuten greba Zestoako hainbat udal langilek, eta joan zen ostegunean, irailaren lehenarekin, bukatutzat eman zuten greba.

tun direla LAB sindikatuak beste udal batzuetako negoziazio mahaietan erreferentzia gisa hartuko dituela Zestoako oinarriak. «Norberak atera ditzala bere ondorioak», azpimarratu dute. Erantzukizunez ere aritu dira: «Akaso, iritsiko da eguna mahai negoziatzailean zein terminotan aritu garen azaldu beharko dena, eta, orduan, norberak beregain hartu beharko ditu dagozkion erantzukizunak». Ohararren amaieran, mezu bat helarazi dute hautetsiek: «Zeinen erraz aldarrikatzen diren eskubideak, eta zeinen erraz hazten diren betebeharrak eta obligazioak».

Grebaren hasiera

Joan zen uztailaren 13an hasi zuten Zestoako Udaleko hainbat langilek greba, administrazio publikoko behin-behineko lanpostuen 20/2021 legearen harira, «beren lanpostuak bermatzea eskatzeko». Hurrengo egunean, uztailaren 14an, «negoziatzeko prest» zegoela jakinarazi zuten Udal Gobernuak, baina «marra gorri batzuekin».

Ordutik soka luzea ekarri du gaiak, eta hainbat izan dira bi aldean adierazpenak ELA sindikatuaren jokoera salatu zuten Zestoako Udalak eta udaleko LABek, eta horri erantzunez, «Egonkortze Legearen aplikazio justua» eskatu zuten grebalariek. Egun batzuk geroago, ELAK babesa adierazi zien Zestoako udal langileei.

Kontua ez zen hor gelditu, eta grebalariek negoziazio mahaia utzi izanak «zur eta lur» utzi zituela esan zuen udalak. Aurrerago, Lan Ikuskaritzan salaketa jarri zioten udal langileek alkateari, «Amabirjin jaietarako zezen plazaren harmailak muntatzeagatik eta auzoetako festetan hainbat lan gauzatzeagatik». Udal Gobernuak, ordea, grebarko zuten ikuspuntuari eutsi zion. ELAk salatu zuen Zestoako Udala «langileen eskubideak zapaltzen» ari zela, eta udalak, ELAri erantzunez, «interes sindikal soil bat interes publikoaren eta orokorraren gainetik jartzeko onartezina» zela leporatu zion.



Finalera sailkatu diren sei finalistetatik bost, Azpeitiko zezen plazan. MAILO OIARZABAL

Bi txapeldun eta lau hautagai, V. Euskal Pentaloiairen finalerako

Zalduak eta Izetak egin dituzte marka onenak finalerako kanporaketan • Izetak eta Gabirondok errepikatuko dute hilaren 24an Azpeitiko zezen plazan jokatu duten final nagusian

-MAILO OIARZABAL *Azpeitia*
Erabakita dago irailaren 24an Azpeitiko zezen plazan jokatu duten V. Euskal Pentatloi Sariaren finala. Larunbatean jokatu zuten, toki berean, finalerako kanporaketa. 100 kiloko harriari hamar jasoaldi, giza proban 400 kiloko harriarekin plaza bana, aizkoran kanaerdiko eta 45 ontzako enbor bana ebaki, 50 kiloko txingekin hiru plaza eta korrika kilometro bat egin behar izan zituzten kirolariak, hurrenkera horretan.

Hamabi kirolari lehiatu ziren hiruak lau txandatan banatuta, eta sei onenek lortu zuten finalera sailkatzea: Xabier Zaldua (12 minutu eta 12 segundo), Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a* (12:22), Julen Gabirondo (13:21), Aitzol Atutxa (13:22), Ioritz Gisasola *Zelai IV.a* (13:27) eta Jokin Urretabizkaia *Basozabal* (13:32).

Joseba Otaegi (13:54) izan zen lanak 14 minutu azpitik bukatu zituztenen artean finalerako kanporaketaren bakarra. Iñaki Errazkin (14:10) izan zen zortzi-

garrena, Aritz Irazabal (14:32) be-deratzigarrena, Beñat Amade (15:38) hamargarrena, Julen Kañameres (15:40) II.a eta Jon Gisasola *Zelai V.a* (16:15) hama- bigarrena.

Lehen kanporaketatik zeto-zen lau kirolariak -Zaldua, Atutxa, Zelai IV.a eta Basozabal- igaro dira finalera. Aitzitik, izako finalistetatik bik besterik ez dute errepikatuko aurtengoan, Izeta VI.ak eta Gabirondok. Finala irailaren 24an izango da Azpeitiko zezen plazan.

Irudia Azkoitia



Reala nagusi, Euskal Herria Koparen finalean

XII. Euskal Herria Koparen finala jokatu zuten igandean Azkoitiko Txerloan Realak eta Alavesek, eta txuri-urdinek 4 eta 1 irabazi zuten. Finala hasi aurretik, ordea, emakumeen futboleko egindako lana eta ibilbidea aitortu zizkieten bi azkoitiarri: Sorkunde Garate futbol jokalaria ohiari eta Anaitasunaren emakumeen koordinatzaile eta entrenatzaile izandako Ibon Orbeari. MAILO OIARZABAL

Irudia Azpeitia



Herrian gelditu da Kriket Txapelketako txapela

Espainiatik, Frantziatik, Kataluniatik nahiz Euskal Herri zabaletik etorritako kriket taldeek jokatu zuten igandean Azpeitiko Kriket Txapelketa. 300 lagun inguruk parte hartu zuten lehiaketa, eta Azpeitiko taldeak irabazi zituen garaikurra eta 2.000 euroko saria. Gasteiz izan zen bigarrena, eta garaikurra eta 1.000 euro jaso zituen. UTZITAKOAK

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain **TXIKIA** (82mm x 64mm): 104 € / *Harpidedunentzat: 52 €
HANDIA (124mm x 64mm): 156 € / *Harpidedunentzat: 78 €
merkeago **ESKERTZA** (98mm x 64mm): 52 € / *Harpidedunentzat: 27 €

*Harpidedunentzat: HITZAKo hitzaren gain
Bea baso

Urola Kostako

HITZA

Asteartea

2022ko irailaren 6a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Nerea Uranga.
Helbidea: Azpeitia. Soreasu 1., 20730. 943-81 38 41.
Zarautz. Araba kalea 27, 20800. 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukt.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Amaia Urbieta Arruti.
Publizitatea: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@ukt.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@ukt.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@ukt.eus.
Getaria: 607 61 52 39. getaria@ukt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@ukt.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@ukt.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@ukt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943-30 30 35



Goiza



Arratsalde

Temperatura
V 29°
A 17°

Mareak

Itsasgora 01:22-13:55
Metroak 3:20-3:45
Itsasberera 07:25-20:08
Metroak 1:22-1:27

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Ospatzen duen herria

Osasun krisiaren ondoren, Euskal Asteaz gozobeterik gozatzen ari dira zarautzarrak
● Asteburuan Euskaraz Bizi Eguna eta Haurren Euskal Jaia ospatu dira herrian

-ARITZ MUTIOZABAL Zarautz Euskal Asteaz murgilduta dau-de bete-betean zarautzarrak, eta asteburuan makina bat ekitaldi-rekin gozatzeko beta izan dute. Larunbatean, Euskaraz Bizi Eguna izan zen, eta goizean 200 lagunetik gora irten ziren Euskararen Aldeko XXVI. Lasterketan eta III. Irristaketa Lasterketan. Ahizpea Lertxundi izan zen korrika azkarrena emakumeetan, eta Asier Astigarraga gizonetan. Irristaketa modalitatean, berriz, Lore Lazkano izan zen garaile.

Ondoren, ekitaldia egin zuten malekoian, musika eta dantza uzartuz. *Martxa baten azken notak*, *Behin betiko* eta *Ikusi mendizaleak* abestu eta dantzatu zituzten elkarrekin, eta euskararen aldeko aldarria ere irakurri zuten. Adierazi zuten, «euskaraz zaindu egin behar dugun, eta gure aurreko belaunaldietatik jaso dugun moduan, ondorengoei eman behar diegu». Eguedian herri bazkarirako elkartu ziren Musika Plazan, eta gauean Lukiek taldearen zuzeneko emanaldiak girotu zuten jaia.

Igandean, Haurren Euskal Jai

Eguna ospatu zuten, eta ohitura-ri jarraituz, dantzarien bilkura eta emanaldia egin zituzten Lege Zaharren enparantzian. Arratsaldean, buruhandi eta erraldoiek, txarangarekin eta herriko trikitilarekin kalejira egin zuten Inurritza auzora. Bertan, puzgarriak eta dantzaldia egon ziren.

Euskal Astearen barruan, hainbat kultur txapelketa ere jokatu dira egunotan. Ostiralean, esaterako, Bertsolari Gazteen Lizardi sariko finala egin zuten, eta Aner Peritz zarautzarrak jantzi zuten txapela; 286,5 puntu lortuta. Bi puntura gelditu zen bigarrena, Andoni Rekondo hernaniarra. Gainera, horrek lortu zuen bertso onenaren saria.

XXXIV. Aurreku Txapelketa jokatu zuten larunbat eguedian Lege Zaharren enparantzian. Guztira, dozena bat dantzarik parte hartu zuten, eta Mattin Etxebeste oiartzuarrak irabazi zuen. Ostegunean izandako Helduen Binakako Dantza Txapelketa txapela, berriz, Laura Bastida eta Ekain Uzkudun azpeitiarrentzat izan zen.



Egundoko giroa nagusitu zen Euskaraz Bizi Eguneko herri bazkarian. MIREIA GALARZA BASTIDA



Dantzarien emanaldia Lege Zaharren enparantzian, Haurren Euskal Jai Egunean. URTZI OTEIZA



Aner Peritzek irabazi du Lizardi Saria. A. URBIETA ARRUTI



Mattin Etxebeste dantzan. MIREIA GALARZA BASTIDA



gorriti | martínez

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOAK

Zigordia kalea, 44 • 688 639 664 • ZARAUTZ • uleitxi@gmail.com • uleitxi@gmail.com • www.uleitxi.com